

GU LIZARRAN



EGILEAK:

Lehen
hezkuntzakoak

2003-04ikasturtea



Aurten, beste urteetan bezala, eskolatik gau bat egitera joan gara L.H.koak.

Iaz Piraten etxera joan ginen gau bat pasatzera eta aurten Lizarrara.

Kampingera heldu baino lehen, herriko parke batera joan ginen eta bertan bokadiloa bazkaldu genuen.

Jan ondoren kampingera heldu ginen. Ondoren maletak utzi, bainujantzia jantzi eta eguzkia hartu genuen. Eguzkia hartu eta gero, niki zuria pintatu genuen, eta bost koloretatik bi aukeratu genituen: Beltza eta naranja.

Nikiak tintatzen egon ziren bitartean, igerilekuan jolastu genuen.

Ondoren, komunera joan, haginak garbitu, pijama jantzi eta desfilea egin genuen, aurkezle txotxolo batekin, Ziortzak eta Leirek. Geroxeago ohera sartu eta 00:00izan zirelako Egoitzi zorionak abestu eta erdi lo geratu ginen.

Goizean 08:00etan esnatu ginen eta prestatzen hasi ginen



Goizean 08:00etan esnatu ginen eta prestatzen hasi ginen. 08:45etan gosaltzeko mahaia prestatu eta gosaltzen hasi ginen. Ondoren mahaia jaso eta zaldietara joan ginen.

Lehenengo nagusiek eman zioten mendiari bira zaldiz eta gero guk, Naiarak izan ezik. Bira eman ondoren berriz ere igerilekura joan ginen jolastera.

Igerilekutik irten, dutxatu, jantzi, maletak bajatu eta bazkaltzeko mahaia jarri genuen. Segituan, bazkaldu eta mahaia jaso genuen. Bertan autobus gidaria eta beste neska bat egon ziren guri itxaroten. Minutu batzuk beranduago maletak autobusean sartu genituen. Ondoren, aurreko bidaiako lekuetan eseri ginen eta kontuak esaten hasi ginen.

LIZARRAN ERE PIRATEN ETXEAN

BEZAIN PRIMERAN PASATU DUGU.

Leire Juaristi eta Ziortza Kortabitarte



Maiatzaren 25 eta 26an Lizarrara joan ginen eta izugarrizko piszina egon zen. Gizona etorri zenean maletak utzi eta gero bainujantzia jantzi eta eguzkia hartu genuen eta gero nikia egin genuen. Nikia egin ondoren, piszinara sartu ginen. Piszina pixka bat ibili ondoren dutxara joan ginen. Gero aldatu ginenean buelta bat eman genuen. Gero afari txarra jan genuen baina postrea goxo-goxoa izan zen. Gero jokoetara joan ginen. Handik irten ondoren txintxongetara joan ginen. Hamarrak ailegatu zirenean diskotekara joan ginen baina aspergarria izan zen. Gero ohera joan ginen hurrengo egunerako erropak preparatu genituen eta gero haginak garbitzen joan ginen eta ohean sartu eta gero hamabietan Egoitzi zorionak kantatu genizkion eta lo egin genuen. Hurrengo goizean bainujantzia jantzi eta zaldiei itxaroten egon ginen. Gero zaldian exeri ziren.



Egoitz, Josu, Antxon, eta Gurutz eseri ziren eta buelta itzel bat eman zuten. Ailegatu zirenean Mikel, Leire, Martzel eta laurok eseriginen. Zaldiak kriston mantzoak izan ziren. Bidean gizonak esan zidan 'dale fuerte' eta nik eman nion. Mikelen zaldia jaten hasi zen eta nire zaldiak ipurdian ukitu zion Mikelen zaldiari. Zaldiak ostikoa eman zion. Etorri ginenean erropak kendu eta piszinara joan ginen eta segiduan salto egin nuen. Gero erropa garbiak jantzi genituen. Maletak hartu ondoren, bazkaria jan genuen. Gero agur esan eta autobusean maletak sartu eta abiatu egin ginen. Bidean gerra egin genuen Egoitz eta ni Leire eta Ziortzaren kontra. Azkenean Egoitzek eta biok irabazi genuen. Oso ondo pasatu genuen.

Aitor Arostegi



Maiatzaren 25ean Lizarrara joateko autobusa hartu genuen. 2 ordu eta erdi egin genuen, geldialdia Gasteiz pasatu eta gero. Lizarrara heldu ginenean parkera joan ginen eta han jan egin genuen. Gero Lizarrako kanpinera joan ginen. Gure gelan maletak utzi eta tokia ezagutu genuen. Gero eguzkia hartu genuen. Gero kamiseta tintatu genuen eta gero piszinarara joan ginen. Hori amaitu genuenean afaldu egin genuen. Gero diskotekara joan ginen. Gero Egoitzi zorionak kantatu genion. Hurrengo egunean zaldian ibili ginen. Bazkaldu genuen eta etxera joan ginen.

Martzel Navarro



Maiatzaren 25 eta 26an, Lizarra kanpinera joan ginen. Martitzenean autobusa hartu eta Lizarrara abiatu eta Lizarra herrian gelditu ginen. Bazkaria jan genuen parkean. Bazkaria amaitu ondoren, puenting egiten ikusi genuen. Lizarra kanpinera eldu ginen logelara joan eta maletak hartu genituen. Gero bainujantzia jantzi genuen, kamiseta bat pintatu genuen. Ondoren piszina ibili ginen, gero arropaz aldatu eta afaltzera joan ginen. Lehenengo espagetiak gaztaiarekin, san jakoboa eta gero izozkia jan genituen. Gero hortzak garbitu eta deskantsatu egin ginen eta gero lo zakuak ohean jarri genituen. Gero diskotekara joan ginen. Pijama jantzi eta hurrengo eguneko arropa listo utzi genuen eta lo zakuan sartu ginen.



eskek desfilea egin zuten pijamena. Gaueko 12:00 etan
goitz zorionak abestu genion. Batzuk lo askori ez zuten
gin Leirek, Ziortzak eta Martzelek . Martzel goizaldeko
:00 etan kaka egitera joan zen. 8:00 etan jaiki eta jantzi
gin ginen. Gosaltzera joan ginen. Gosaltzeko Cola Cao ,
erealak eta txurroa eduki genituen. Gero hortzak garbitu
genituen. Ondoren, zaldian ibili ginen. Lehenengo
1.mailakoak eta 6.mailakoak ibili ziren. Ger gu
1.mailakoak eta 2.mailakoak ibili ginen. Zubi bat pasa
ta gero Aitorrek zaldiari ostiko eman zion eta Aitorren
zaldia muzturrarekin ipurdia ukitu zion eta nireak ostikoa
eman zion Aitorren zaldiari aurpegian jo zion. Nire zaldia
broena izan zen. Gero zalditik jeitsi eta arropak kendu
ta piszinara joan ginen Piszinan oso ur hotza egon zen.
Gero arropak aldatu eta bazkaltzera joan ginen.
bazkaltzeko arroz zuria tomatearekin gero txerri txuleta
eduki genuen patatekin eta postrea yogurra. Gero
autobusa hartu eta Amorotora etorri ginen
autobusean. Inoiz eduki dudan bidaiarik politena izan da.

ikel Arrizubieta



MAIATZAREN 25 ETA 26 AN LIZARRARA JOAN GINEN.MARTITZENEAN AUTOBUSA HARTU ETA BI ORDUKO BIDAIA EGIN GENUEN.PARKE BATERA JOAN GINEN BAZKALTZERA.

GERO LIZARRAKO KANPINERA JOAN GINEN. LEHENENGO GELA IKUSI GENUEN ETA MALETAK UTZI GENITUEN. GERO EGUZKIA HARTU ETA IZOZKIA JAN GENUEN. ETA GERO KAMISETA TINTATU GENUEN ETA KAMISETA AMAITU GENUENEAN IGERILEKURA JOAN GINEN ETA GERO MERIENDA JAN GENUEN. BERRIRO IGERILEKURA JOAN GINEN.

ONDOREN DUTXATU EGIN GENUEN. AFARIA JAN GENUEN. DISKOTEKARA JOAN GINEN ETA GERO LOTARA JOAN GINEN.

HURRENGO EGUNEAN GOSALTZEKO ZEREALAK ETA TXURROAK EDUKI GENITUEN.ZALDIAN IBILI ONDOREN, PISZINARA JOAN GINEN ETA GERO BAZKALDU EGIN GENUEN .ONDOREN AUTOBUSA HARTU ETA BOST TERDIETAN HELDU GINEN AMOROTORA.

Naiara Elordi



AIATZAREN 25 ETA 26AN LIZARRARARA JOAN
GINEN.MARTITZENEAN AUTOBUSA HARTU ETA BI
RDUKO BIDAIA EGIN GENUEN. LIZARRAKO
ARKE BATERA JOAN GINEN BAZKALTZERA. GERO
LIZARRAKO KANPI NERA JOAN GINEN .
EHENENGO GELA IKUSI GENUEN ETA MALETAK
TZI GENITUEN .GERO EGUZKIA HARTU ETA
SOZKIA JAN GENUEN. KAMISETA TINTATU
GENUEN ETA AMAITU GENUENEAN PISZINARA
DAN GINEN.GERO MERIENDA JAN GENUEN.
ERRIRO PISZINARA ETA GERO AFALDU GENUEN.
GERO DISKOTEKAN SARTU GINEN.GERO LOTARA
DAN GINEN.

URRENGO EGUNEAN ZALDIAN IBILI
GINEN.ONDOREN PISZINARA JOAN
GINEN.BAZKALDU GENUEN ETA AUTOBUSA HARTU
GENUEN ETXERA JOATEKO.

mai Gabiola



Lizarrara bidaiia

Lehenik, Lizarra herria ezagutzera joan ginen. Geroago parke batean bazkaria jan eta jolastu egin ginen. Ondoren, Lizarrako kanpina ezagutzera joan ginen eta oso polita iruditu zitzaidan. Gero monitoreak ezagutzera joan ginen, lo egiteko gelako giltzak eskatu eta ea zelakoa zen ikustera joan ginen. Handik gutxira, kamisetak tintatu genituen, nik kolore beltzean. Sartu nuen nikiak tintatu eta igerilekura joan ginen. Ur hotza egon zen lehenengoan baina gero ez. Merienda igerilekutik irtenda jan genuen eta berriro igerilekura joan ginen. Igerilekutik irten eta gero erropak janztera joan ginen ze ondoren afaria jan behar genuen. Afaria oso txarra egon zen. Afal ondoren, hamarretatik hamabiak laurden gutxiagotaraino diskoteka eduki genuen baina aspertu eta hamaiketan lotara joan ginen. Logelan Leirek eta Ziortzak desfilea egin zuten, Martzel aurkezlea izan zen baina ez zuen jakin zer esan. Hamabietan zorionak kantatu zidaten ze maiatzaren 26an nire urtebetetzea izan zen. Gero lo egin nuen.



urtego goizean esnatu eta erropak jantzi nituen zeren bederatzietan gosaria jan behar genuen. Nik zereal asko jan nituen. Hamarretan, zaldian ibili ginen ordu bete. Nik erabili nuen zaldia beltza zen, Gurutzena marroi argia. Bertako gizonarena zuria, bertako neskarena zuria, Josurena zuria eta Antxonena beltza eta marroia. Zaldien gainean ordu bete egin ondoren besteak ibili ziren. Martzel ni ibili nintzen zaldian ibili zen; Mikel Josunean; Leire Gurutzenean; Aitor Antxonenean. Gero Monitoreei agur esan eta etxera joan ginen.



EGOITZ ELORRIETA

Lizarrara bidaiia

Maiatzaren 25ean Lizarrara abiatu ginen. Lehenengo Lizarra herria pixka bat ikusi genuen eta parkean bokata jan genuen. Han alboan, autobus geltokia zegoen eta gure autobusari han itxaron genion, ondoren Lizarra kanpinera abiatu ginen, kanpinera heldu ginenean, logelako giltza hartu, eta barrura sartu ginen. Motxila eta lo-zakua han utzi, bainujantzia jantzi, haren gaintik niki bat, eta kanpora joan ginen. Igerilekuaren alboan etzan eta izozki bat jan genuen. Gero kamisetak egitera joan ginen. Nik Egoitzi lagundu nion eta berak niri, oso erraza zen. Bukatutakoan igerilekura abiatu ginen, sartu aurretik dutxatu egin behar zen, eta Naiara nikiarekin dutxatu zen, eta guk barre asko egin genuen. Igerilekuko ura oso hotza zegoen eta Gurutz eta Antxon salto batekin sartu ziren. 17:30ak inguruan meriendak ekarri zizkiguten, gazta eta jamoidunak. Gu igerilekutik atera egin behar izan ginen. Jandakoan berriro igerilekura sartu ginen, igerilekuan jolastu ondoren atera egin ginen. Gero esku oihala lepoan ipini eta komunetara joan ginen dutxatzera. Dutxatu eta gero buelta bat ematera atera ginen guztiok, berantz gindoazela burdinazko baila baten atzean bost mastin zeuden. Beherago txerrien granja bat zegoen. Buelta hartu eta gero afaria jan genuen, lehenengo espagetiak zeuden eta gero jamoizko Sankajoboa.



- Denak jan genituen, baina ez zeuden hain onak, baina esan zigun denak jaten bagenituen hurrengo egunean txurroak emango zizkigutela, eta horregatik jan genituen. Jan eta gero diskoteka txiki batera joan ginen. Han bero handia egiten zuen eta aspertu egin ginen, 23:30etan lotara joan ginen eta han Leirek eta Ziortzak pijamen desfilea egin zuten eta amaitu zutenean ohera sartu eta lo egin genuen.
- Hurrengo goizeko 9:00etan gosaria jan genuen. Nik esnea eta bi txurro jan nituen. Oso gozoak zeuden. 10.00etan zaldietan ibiltzera joan ginen. Ni zaldi zuri baten gainean ibili nintzen eta ordu beteko ibilaldia egin genuen. Amaitu eta gero Jonen gelakoen txanda zen eta Mikel ni ibili nintzen zaldian eseri eta ibili zen. Bidaia egiten zuten bitartean, gu igerilekuan ibili ginen eta guk han itxaron genien. 13:30 etan bazkaltzera joan ginen eta orduan arroz zuria eta txarri txuletak zeuden jateko. Oso gozoa egon zen. Jan eta gero, monitorea agurtu, nikiak hartu eta autobusera abiatu ginen. Han igo eta Amorotora abiatu ginen. Lo pixka bat egin nuen.

JOSU IMAZ



Lizarrara Bidaiia

Lizarrara Bidaiia

- Maiatzaren 25ean, Lizarrako herrira heldu, herria pixka bat ikusi eta bokadiloa jan genuen.
- Geroago, Lizarrako kanpinera joan ginen, logelako giltza hartu eta logela ikustera joan ginen, zakuak ohetan utzi, arropak ongi ipini, bainujantzia jantzi, esku oihala hartu, tintatzeko niki zuria hartu eta nikiak tintatzen joan ginen.
- Handik ordubetera igerilekura sartu ginen denok, igerilekuan ibili eta askaria jatera joan ginen belartzara.
- Askaria jan eta gero berriro ere igerilekura joan ginen zazpiak artean.
- Zazpitan logelara joan xaboia hartu eta dutxatzera joan ginen.



- Zazpiak eta laurdenetan ibilbide bat egitera joan ginen Ana eta Jonekin. Gero zortzi terdian afaria jan genuen, espagetiak tomate eta gaztarekin, sanjakoboa, okela eta jamoiarekin. Gero postrean, izozkiak jan nituen. Gaueko hamarrak arte itxaron eta hamarretan diskotekara joan ginen, musika entzun eta dantza egitera.
- Gaueko hamabietan Egoitzi zorionak abestu genion, gero denok lo egin genuen.
- Maiatzaren 26an, goizeko bederatzietan gosaria jan eta zaldietan ibiltzera joan ginen. Ordubeteko ibilbidea egin genuen zaldi gainean.
- Zaldian ibili eta gero igerilekura joan ginen denok.
- Eguerdiko ordu batetan bazkaria jan genuen: arroza tomate eta gaztarekin gero txarritxuleta patata frijituekin eta postrea marrubizko jogurta. Ordu-bietan Amorotora etortzeko autobusera joan ginen.
- GURUTZ ARRIAGA



LIZARRARA BIDAIA

- Goizean autobusa hartu eta Lizarrara abiatu ginen. Lizarrara heldu ginenean gizon batek zein zen gure logela-erakutsi zigun. Oso kanpin polita zen. Gero maletak utzi eta bainujantzia jantzi eta igerilekura joan. Igerilekuko ura hasieran oso hotza zegoen baina gero berotu egiten ziren. Igerilekuan ondo pasatu eta gero kamisetak tintatu genituen. Nik beltzezko tintatu nuen eta oso polita geratu zen. Kamiseta tintatu ostean berriz igerilekura joan ginen apur batean, ondoren irten eta berriz aldatu ginen. Hau egin eta gero bueltatxo bat eman genuen. Etxe batean bost edo lau Mastin ikusi genituen eta oso politak ziren, behean txerrien baserri bat zegoen.



- Bueltatu ginenean denbora pasan txintxongetara joan ginen. Gero afariko ordua heldu zen eta mahaia prestatzera joan ginen. Afaltzeko espagetiak eta sanjakoboa patatekin izan genituen jateko, dena oso goxoa izan zen.
- Gauean diskoteka izan genuen eta hurrengo egunean zaldietara joan ginen. Zaldietan ordu beteko buelta bat ematera joan ginen eta horixe gustatu zitzaidan gehien. Nire zaldia gorria zen, eta oso mantxua. Zaldietan ibili ostean bainu bat hartzen joan ginen igerilekura, gero berriro mahaia ipintzera joan ginen bazkaltzeko. Bazkaltzeko arrosa tomatearekin eta txuletilak izan genituen. Bazkaldu ondoren autobusari itxaron genion eta etxera itzuli ginen.
- ANTXON GABIOLA

